

ZAINKETA ARINGARRIAK BEHAR DITUZTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BEREN FAMILIAK

1. **Zainketa Aringarriak jasotzeko eskubidea**, edozein delarik nire patologia edo egoera, nire bizitokia edo adina. Ez bakarrik gaixotasunaren fase aurreratuetan, baizik eta sendatzea posiblea ez den egoera guztietan, eta nire ongizatea mehatxatzen duten haietan.
2. **Formatutako pertsona adituek eta sentiberek ni zaintzeko eskubidea** edozein esparrutan (ospitalea, egoitza, etxea...), eta behar baldin badut Zainketa Aringarrien talde espezifikoen bidez.
3. **Minetik libre** egoteko eskubidea daukat, baita nire lasaitasuna gehien mehatxatzen duten sintometatik ere, zientziak demostraturik eraginkorra den guztia erabiliz.
4. Hala nik nola nire senideek **sostengu psikologiko eta espiritual**a eskura edukitzeko eskubidea, prozesuan zehar eta hau amaitu ondoren egoerari ekin ahal izateko.
5. Beharrezkoak diren **laguntza sozialak** eduki ahal izateko eskubidea, zainketak nire etxean ahalbidetzeko eta nire zaintzaileak sostengatzeko arlo fisiko, praktiko eta ekonomikoan. Komunitatean dauden baliabideak jasotzeko eskubidea (etxeko laguntzak, boluntarioak...), nire ingurunean geratu ahal izateko, hala erabakitzen badut. Nire zainketekin jarraitzeko leku egoki bat edukitzeko eskubidea, etxean geratzea posiblea izango ez denean.
6. Gaixotasunaren **azken egunak igarotzeko** nahi dudan **lekua** erabakitzeko eskubidea daukat. Konfort eta intimitate giroan zainduta izateko eskubidea daukat, hala ni nola maite nautenak eroso egon ahal izateko eta konfidentziasuna bermaturik.
7. **Arreta mota hau modu jarraian** jasotzeko eskubidea, egunean 24 orduz eta urtean zehar egunero eskura edukitzeko bermearekin.
8. Modu zintzoan **gertatzen zaidana jakiteko eskubidea**, hala nahi baldin badut, nik neuk ezagutu nahi ditudan xehetasunekin nire erabakiak hartu ahal izateko. Baita artatzen nauten profesionalen aholkuekin ere.
9. Nire **iritziak eta borondateak** adierazteko eskubidea, artatzen nauten profesionalak kontuan hartzeko, baita nire gaixotasunaren bilakaeran aldatu ahal izateko ere.
10. Azkenik, nire **sufrimendua arintzeko modu** guztietatik saiatzeko eskubidea daukat, baita **nire duintasuna errespetatuz zainduta** izatekoa ere. Nire erabakiak kontuan hartuta, nire baloreak errespetatuz, nire biografiarekin modu armonikoan eta nire egoera edo nire gaixotasunaren pronostikoa gora-behera.